

ZESUMA

Imanol Urkizuren panderorako metodoa



Imanol Urkizu oriotarrak *Panderorako jotzen ikasteko metodoa* izeneko DVDa kaleratu du. Euskaraz egin du, baina gaztelaniazko bertsoia ere osatu du Euskal Herritik kanpoko musikazaleentzat. Urkizuk Ibon Koteronen, Bilboko Udal Txistulari Bandaren, Tapia eta Leturiaren, Maixa eta Itziarren eta Alaitz eta Mainerren laguntza izan du.

Metodo honen bidez, norberak bere etxean ikas dezake panderorako jotzen. Ildo horretan, lan hau oso egokia izan daiteke trikitixa eskoletara edo musika eskoletara joaterik ez daukan jendearentzat.

Lau atal nagusi ditu *Panderorako jotzen ikasteko metodoa* DVDak. Lehen atalak **Metodoa** du izena, eta atal horretan daude bilduta azalpen tekniko nagusiak: oinarriko mugimenduak, erritmoak -kalejira, fandangoa eta arin-arina jorratzen dira-, erritmo bakoitzari dagozkion oinarriak, partiturak... **Adibidezko koplak** atalean, Urkizu bera ageri da koplak hautatu batzuk, Bizkaikoak gehienak, ahotsez eta panderoraz ematen. **Audio pistak** atalak doinu batzuekin praktikak egiteko aukera eskaintzen du, «karaoke gisa». Azkenik, **Bideografia** atalak hainbat musikariren saioak eskaintzen ditu. Ibon Koteronen alboka-jotzailea, Tapia eta Leturia, Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider eta Bilboko Udal Txistulari Banda entzun daitezke. Grabazio-lanetan, bestalde, Urtzi Garmendia aritu da.

KALEJIRAN

Lantz folk musika taldeak lehenengo lan diskografikoa, Igaran gaiak izenekoak, kaleratu berri du

Eskarmentu handiko zortzi kantarik eta musikarik osatzen dute taldea. Garbiñe Insausti, Olatz Prat eta Oihana Lekuonaren ahotsak Mikel Errazkin (teklatuak, samplerrak eta programazioak), Xabi Lopez (gitarra akustikoa), Alaitz Telletxea (trikitixa), Josean Martin Zarko (bouzouki, gitarra akustikoa eta mandolina) eta Juan Ezeiza (bibolina, txirula, alboka) musikariren doinuekin uztartzen dira Lantz folk musika taldean. Lan berriak elementu akustiko eta elektronikoak nahasten ditu, eta aldi berean garaikidea eta tradizionala izaterik badagoela erakusten du.

Mikel Errazkinek berak ekoitzi du lan berria eta, beste zenbaiten artean, nazioartean aski ezaguna eta ospetsua den Phamie Gow artista eskoziarrak ere parte hartu du. Konpositorea izateaz gain, arpa, pianoa eta soina ere jotzen ditu Gowk.

- Gose taldearen ibilerak

Joan den ekainaren 7an TVE 2an ikusi ahal izan genuen Gose. Azkenaldian, han eta hemengo hainbat ekimenetan ari dira parte hartzen: diskoa, Eutsi filmako kanta nagusia, Carlinhos Brown kantariaren telonero, hainbat kontzertu estatuan zehar eta beste hamaika kontu.

Elektro-jazza, tangoa, sehaska kantua, afro-braziliar perkusioak panderoarekin batuta batukada eginez, technoa, punka eta hard corea, arin-arina; baina orenen gainera trikiaren mundua eta sekuentzia elektronikoaren energia ahots goxo eta liluragarri batek lagunduta. Gose taldeak euskal trikiaren kultura irauli du.

GALBAHEA

Jon Lasa trikitixa irakaslea:

“Beharko dira lehiaketak, baina, nire iritziz, garrantzitsuagoa da herriko kontuetan presente izatea, parte hartzea edo zenbait ikasle bere aldetik elkartu eta taldetxo bat sortzea erromerietan eta antzekoetan aritzeko. Baditugu aurkeztuz gero lan ona egin dezaketenek ikasleak, baina sekula ez ditugu horretara animatu, ez baitzaigu interesatzen eskola horregatik ezagutaraztea”. (Argia, 2007/04/08).

Ines Osinaga (Gose taldeko trikitilaria):

“Gosek euskaraz kantatu behar zuela hasieratik geneukan argi, baina ez trikitiarekiko errespetuz edo militantziagatik. Euskaraz bizi banaiz, euskaraz amets egiten badut, euskaraz kantatzen dut. Eta hor ere konturatu gara aurreritziak eta gutxiagotasun-komplexuak baztertu egin behar direla. Jendea normalean ez zaio inporta zein hizkuntzatan abesten duzun”. (Diario Vasco, 2007/05/01)

“Trikitia beste edozein instrumentu bezalakoa da, nahiz eta gure kasuan herri musikari lotua egon bereziki. Maurizia gogoko dugu, baina baita Garbage edo Prodigy ere, eta guztiz naturalean joan gara bi mundu horiek uztartzen”. (Diario Vasco, 2007/05/01)

Imuntzo (trikitilaria):

“Plaza ez duk, jendeak esaten duenez, hainbeste aldatu, gure kasuan behintzat. Garai batean asko, eta gaur egun ezer ez. Hori ez duk zuzena, orduan ez huan horrenbeste, ezta horren gutxi ere gaur egun”. (Argia, 2007/04/08)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA PORRU!

2007ko ekaina / 25.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G. : SS-418/01

TRIKITIXA IKASTAROA ZUGARRAMURDIN, TROBADA



Trikitixa ikastaroa izango da datozen **uztailaren 7 eta 8an Zugarramurdin**. Asteburu hori aukeratu da irakaskuntzari ateak irekitzeko antolatutako ikastaro hau egiteko. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero antolatzen ditu ikasle zein irakasleei bideratutako ikastaroak, irakaskuntza alorra lantzea elkartearen ardatzetako bat baita. Oraingoan hiru irakasle izango dira gure artean, beren jakituria zabalteko: **Patrick Larralde, Xabi Aburruzaga eta Carles Belda**.

Ildo honetan, Patrick Larralde **iparraldeko erreperitorioa** ezagutaraziko du eta bertako joerak irakatsi. Xabi Aburruzagak, berriz, Bizkaiko erreperitorioa ekarriko du gogora, eta hango ñabardurak irakatsi.

Azkenik, Carles Beldarekin **Kataluniako erreperitorioa** eta joerak landuko dira.

Zugarramurdi da elkargunea, eta larunbat goiz zein arratsaldean eta igande goizean izango da herrialde desberdinetako erreperitorio eta joerak ikasteko aukera. **Igande arratsaldean**, ikastaroen ondoren, **kontzertua** eskainiko dute irakasleek. Zugarramurdi asteburu pasa egiteko aukera ezinhobea izanik, nahi duenak bertan lo egiteko aukera ere izango du. Hala, ikastaldian parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko da, eta larunbateko afaria, lo lekua eta igandeko gosaria 25 euroren truke izango dira. Ikastaroan parte hartu nahi izanez gero, jarri harremanetan Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin: 943 832828, 657794217 edo trikitixa@trikitixa.net

SAKABIREN PARTITURAK GUZTIEN ESKURA



Faustino Azpiazu Sakabi (1916-1995) trikitilariaren partiturak kaleratu ditu EHTEK. Gainera, **liburuarekin batera diskoa** ere argitaratu dute, eta trikitilaria bera trikitixa jotzen entzun daiteke. Belaunaldi gazteak trikitilariarengana hurbiltzeko bide polita da, inondik inora ere.

Diskoko piezak **Joxe Mari Iriondok** Loiolako Herri Irritako **grabatu** zizkion Sakabiri. Beraz, bere osotasunean gordeak dira, inguruko soinuak tartean. Ondoren, Xabi Aburrzagak doinu horiek baliatu ditu partiturak idazteko. Trikitiarekin edo beste edozein musika tresnarekin jotzeko baliagarriak dira partiturok, eta era askean jotzeko aukera ere ematen du. Material hau trikitixa-eskoletan erabiltzeko baliagarria izan daiteke, eta, bide batez, belaunaldi berriek musikari zaharren berri gertuagotik jakiteko aukera ematen du. Bi arrazoi nagusi hauengatik ekimen baliotsua da.



Hain zuzen ere, EHTEK tradizioa ezagutarazko helburuz ekin zion lehengo trikitilarien doinuak plazaratu eta denon esku-eskura jartzeari. Sakabiren aurretik, Manuel Sodupe *Gelatxo* eta Jazinto Rivas *Elgeta* soinu-jotzaileen partiturak dituzte gordeak *Soinua paperean* bilduman, eta bildumarekin jarraitzeko asmoa du elkarteak, oso harrera ona izaten ari baita.

Sakabiri dagokionez, estiloa berezia du, ezberdina. Ez zuen orain eskoletan ikasten den teknika, baina oso aberatsa da, berezkoa du estiloa. Hark eta garaikideek belarriz ikasten zituzten piezak, eta euren modura interpretatu. Bere garaian Sakabik plazaratutako partiturak lortu zuen, trikitiari ospea eta garrantzia emanez. Etxetik zetorkion soinurako zaletasuna. Elgeta izan zuen maisu, eta erakutsitakoa berriro zuen. Pieza asko ezagun egin ziren hari esker: *Madalen Madalen*, *Anttoni eta Antton* eta *Zure urtebetetzean*, besteak beste.

SANJOSETAKO JAIALDIAN, PRIMERAN



Aro berri bati bide emanez, **Azpeitian** sanjosestako trikitixajaialdia ospatu zen, giro paregabean. Bertan **6 talde eta 18 musikari** bildu ziren. Aurtengo saioan, **trikitixa beste instrumentu batzuekin uztartuta** entzun ahal izan zen: txistuarekin, dultzainarekin, gitarrekin eta akordeoiarekin, besteak beste. Hala, okasiorako elkartu ziren hainbat musikari, eta saiakeraren emaitza gustagarria izan zen, bertan bildutako iritiz.

Trikitixaz ez ezik, dantzaz ere gozatu ahal izan zuten bertara hurbildutakoek, Luis Alberdi Beltzaren dantza-eskolakoek eskuetik. Bestalde, **Luis Alberdi Beltzak** berak **omenaldi beroa** jaso zuen, dantza-eskolako irakasle-lanetan 25 urtez jarduteagatik. Oro har, giro polita izan zen Azpeitiko Izarritz pilotalekuan, eta bertan bildu zirenek primeran pasatu zuten.



TRIKITIXA, BIBEZ BIDE

Trikitixa han eta hemen dabil, hamaika plazatan. Udaberriarekin batera, trikitixa egunak eta erromeriak ugaltu egin dira. Hala, **Debagoienako Trikitixa Eguna**, **Iparraldeko Trikitixa Eguna** eta **Bergarako erromeriak** izan dira azken hiru hilabeteetan trikitixazaleen zita garrantzitsu. Izan ere, trikitixari astindua emateko abagune aproposak dira ekimen hauek, eta, gainera, hiru ekimenetan giro polita sortu da, trikitixaren aitxakian. Trikitixaren ohiko plazez gain, horrelako egunak ere ondo baino hobeto datoz, trikitilari gazteek, ikasleek alegia, ikasitakoa erakusteko aukera izan dezaten.

Omenaldiak

Omenaldia Ospas, Landakanda eta Epelarrerri, Martitzen

Maiatzaren 27an omenaldia egin zitzaien Martitzen Ospas, Landakanda eta Epelarrerri Pentekoste jaietan, trikitilari ugariren laguntzarekin. Goizeko hamaika eta erdietan meza izan zen, eta bazkalosteko erromerian, Epelde, Lutxurdio, Tapia eta Leturia, Laja gaztea eta Izer, Egurrola aita-semeak, Jauregi eta Pujarro, Xabier Etxaniz, Galdos eta Ainara izan ziren. Giro bikaina izan zen, eta hiru trikitilariak merezitako omenaldia jaso zuten.



Omenaldia Antonio Agirre trikitilariari, Arrigorriagan

Antonio Agirre "Pitolis" trikitilaria betidanik ibili izan da bere Paolo Soprani-arekin hara eta hona, alaitasuna eta umore ona bazter guztietan kutsatuz. Izatez Zaratamokoa den arren, Antoniok betidanik izan du Arrigorriagako herriarekin harreman berezia. Horregatik, eta trikitixari eskainitako dedikazioagatik, Bizkaiko Trikitixa Elkarteak Arrigorriagako Udalaren laguntzaz omenaldia egin zion Arrigorriagan bertan, **maiatzaren 13an**.

Eguna trikitilarien kalejirarekin hasi zen, eta ondoren, trikitilariaren omenez egindako eskulturaren inaugurazioari ekin zitzaion. Herri-bazkariaren ostean, eguna behar bezala bukatzeko, erromeria izan zen herriko plazan. Belaunaldi eta leku ezberdinetako trikitilariak, beraz, Arrigorriagan, eta giro aparta, nola ez.

Disko berriak

Imuntzo eta Beloki: GAUAREN HELDUAN

Imuntzo eta Beloki bikoteak seigarren lana kaleratu du, *Gauaren helduan*, Elkarren eskuetik. Hamabost urte joan dira elkarrekin hasi zirenetik. Diskoa ohiko musikariek grabatu dute; Maider Ansa dute lagun berria. Disko berri honetako letra gehienak Beloki pandero-jotzaileak berak egin ditu. Tartean, Andolin Eguzkitzaren eta Amets Arzallusen letra bana dago. Doinuen moldaketez, berriz, Imuntzo arduratu da. Dantza loturako zein askerako, gorputza mugitzeko betiere, aproposa udan zehar plazaz plaza ikusiko dugun bikote honen azken lana.



Astiasaran anaiak eta Beltran: AMASATIK ARRATERA

Lan berri honetan 19 pieza biltzen dira. Soinua, panderoa, dultzaina eta ahotsa dira osagai nagusiak, eta, sueltoko ohiko piezez gain, bestelako erritmoak ere entzun daitezke: martxa, pasodoblea, baltsa, jota, mazarra, korridoa eta polka, esate baterako.

Astiasaran anaiak eta Juan Mari Beltran protagonista dituen lan hau Oiartzungo Lezoti estudioan grabatu dute, Ergoien auzoan.

